

TXIN PART 64





Aurkibidea

Haurtzaro informatzen	3
Euskararen txokoa.....	14
Hatzak bete lan	17
Inauteriak 2016	21
Gu ere kazetari	37
Nahaste berraste	42

TXINPART64

www.haurtzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Haurtzaro Ikastola

Elorrondo, z/g · 20180 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.eus

DISEINUA, MAKETAZIOA


ETA INPRIMAKETA

antza Komunikazio Grafikoa

Paper birziklatuan inprimatuta



TXIN PART 64



haziak PROIEKTU PILOTU BERRIARI ongi etorria eman diogu gure ikastolan

Hartzaro ikastolak merezi duen garrantzia ematen dio, eta eman nahi dio, bizikidetza edo elkarbizitzari; horren adibide ditugu tratu ona eta golden5 egitasmoak, baita martxan jarri berria dugun Haziak proiektua ere.

Dakizuen bezala, Haziak egitasmoaren helburua da ikasleen arteko botere harremanak iraultzea eta ikasleak ahalduntzea.

Haziak proiektuaren baitan eta geletan abian jartzeko askotariko materiala sortu da: bideoak, audioak, LH 2rako Igel marroitzo ipuina, LH 5-6rako "BarruKLIK" komikia, etab. Material horren bidez, haurrek beren sentimendu, nortasun, harreman, lagunarte, norbanako eta abarrez hitz egitea, hausnartzea, ohartzea, kontziente izatea, etab. nahi da. Haur, irakasle eta herritarrengan eta herrian bertan hazi bat erein nahi da.

Berehala hasi gara emaitzak jasotzen. Komikia eta ipuina ikusi, landu eta aztertu ondoren, askabideen unea etorri zaie LH 2 eta 5-6ko ikasleei: *Ni haserretzean, horrelakoa naiz. Ni, lehen, horrelakoa nintzen, baina, gaur egun, beste modu batekoa naiz. Ez dut nire sentimenduez etxean hitz egin... Horrelako esaldiak asko entzun ditugu geletan. Ikasleek beren sentimenduak adieraztea nahi izan da, irudien, marrazkien, raparen, gorputzaren eta ipuinaren bidez. Haur bakoitzak bere barrua non, norekin eta nola askatu nahi duen erabaki du, eta baita askatu ere: *Oso gustura aritu naiz repeatzen. Berriz etorriko zara? Paleta berezi horrekin marraztu nahi dut. Erritmoa jarriko diogu zuen rapari...**

Eta hasi besterik ez gara egin. Haziak proiektuari buruzko informazio gehiago jasotzeko, www.haziak.eus webgunea izango da ikusgai apirilaren 15etik aurrera. Ekaineko Txinpart aldizkarian ere eskainiko diogu merezi eta behar duen lekua.

Berrikuntzekin jarraituz, ongietorria eman nahi dizuegu 2016/17 ikasturtean zuen seme-alaba Hartzaro ikastolara ekartzea aukeratu duzun familia berriei! Ongi etorri gure familia handira!

Elkarrekin, gure proiektua aberasten ari gara, bakoitza gure esparruan, guztia gure haurren mesedetan. Ikusi besterik ez dugu hain denbora laburrean osatu dugun Txinpart aldizkariaren 2. alea. Ederra, benetan!

Jarrai dezagun gure komunitatean hazi txikiak ereiten eta landatzen.

OHARRA:
WEBGUNEAN ALE OSOA
KOLORETAN IKUS DAITEKE



Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH 1	MARTXOAN	DONOSTIARA BRETAKO AZOKARA	AZOKA EZAGUTZEA
HH 1-2-3	URTARRILAK 29	IKASTOLAN	IHOTE FESTARI HASIERA EMATEA. EUSKAL HERRIKO KULTURA EZAGUTZEA.
HH 1-2-3	OTSAILAK 5	INAUTERI FESTA IKASTOLAN	TALDE LANA, ANTOLAKETA, JENDAUURREKO JARRERA, EMANALDIA AURRERA ATERATZEA...
HH 1-2-3	MARTXOAREN 7TIK 18RA	EUSKARAZ BIZI KANPAINA IKASTOLAN	EUSKAL JOLASETAN PARTE HARTZEA
HH 2-3	HILERO	LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA
HH 2	MARTXOAK 3	ZIRKUA IKASTOLAN	EKITALDIAN PARTE HARTZEA ETA ONDO PASATZEA
HH 3	OTSAILAK 23	EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN EGOITZARA	MUSIKAZ GOZATZEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 1	URTARRILAK 15	EKAINBERRIKO KOBAZULOETARA (ZESTOA)	LEHEN GIZAKIEN GAIA OSATZEA
LH 1	URTARRILAK 29	IHOTEAK HAURTZARON	HERRIKO IHOTEAK OSPATZEA
LH 1	OTSAILAK 2	LEIREREN HITZALDIA GELAN	ELIKADURA OREKATUAREN GARRANTZIAZ JABETZEA
LH 1	OTSAILAK 5	INAUTERIAK HAURTZARON	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH 1	OTSAILAK 11	ZINEMA EUSKARAZ NIESSENEN	FILM BAT EUSKARAZ IKUSTEA
LH 1	OTSAILAREN 15etik MARTXOAREN 17ra	IGERIKETA SAIOAK KIROLDEGIAN	IKASLE GUZTIEK IGERI EGITEN IKASTEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 2	Urtarrilak 15	Ikastolako laborategian	AZTI itsas ikerketako zentroan egiten den lana ezagutzea
LH 2	Urtarrilak 26	Zientzia museoko Planetariumera	"Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei..." unitatea lantzea
LH 2	Urtarrilak 29	Ihoteak ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta herriko tradizioetan parte hartzea
LH 2	Otsailak 4	Santa Ageda ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH 2	Otsailak 5	Inauteriak ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH 2	Otsailak 11	Zinema euskaraz Erreterian	Euskarazko film bat ikustea
LH 2	Otsaila	Haziak+programa ikastolan	Bakarkako eta taldeko harremanak lantzea



Lehen Hezkuntza 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 3	Urtarrilak 22	"Feria de invierno" ikastolan	Txanela Lengua Castellanako proiektua burutzea
LH 3-4	Urtarrilak 29	Ihote festari hasiera ikastolan	Euskal Herriko kultura ezagutzea
LH 3-4	Otsailak 4	Santa Ageda kantari Iturriotzera	Euskal kultura ezagutzea eta parte hartzea
LH 3-4	Otsailak 5	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera ateratzea...
LH 4	Otsailak 11	Kirolariei elkarriketa ikastolan	Txanelako 3. unitatea (gorputza) lantzea
LH 3	Urtarrilaren 11tik otsailaren 11ra	Elorsoro kiroldegira	Igeriketa ikastaroa egitea
LH 3	Otsailaren 22tik 25era	Herriko liburutegira	Irakurzaletasuna bultzatzea
LH 4	Martxoak 4	Sukaldaritza tailerra ikastolan	Sukaldaritza Txanelako 4. unitatearekin (Arabia) lotzea
LH 4	Martxoak 17	Festa sahararra ikastolako jaiman	Sahararen egoera ezagutzea eta Arabiaren gaiari amaiera ematea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 5	Urtarrilak 18	Errenteriara	Zinea euskaraz ikustea
LH 5	Otsailak 4	Elizalden Barrena	Santa Agedari kantatzea
LH 5	Otsaila eta martxoak	Ikastolan	Haziak programa aurrera eramatea
LH 6	Urtarrilak 28 eta 29	Odol-emaileen Elkartekoekin tailerra ikastolan	Zirkulazio aparatuari eta transplanteei buruzko informazioa biltzea
LH 6	Otsailak 4	Santa Ageda Elizalde auzoan	Euskal kultura ezagutzea
LH 6	Urtarrilak 29	Ihote festaren hasiera	Euskal Herriko kultura ezagutzea
LH 6	Otsailak 5	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera ateratzea...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1	Otsailak 1	Antzerki emanaldia ikastolan	Hautazko tailerrean egindako lana aurkeztea
DBH1	Otsailak 4	Santa Ageda ikastolan eta Elizalde auzoan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
DBH1-2-3-4	Otsailak 5	Inauteriak ikastolan eta Elizalde auzoan	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
DBH1	Otsailak 19	XXXVI. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa Hernanin	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
DBH1	Martxoan (Aste Santu aurretik landuko da)	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen Prebentzio Programa / TABAKOA, ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa eskaintzea
DBH2	Urtarrilak 20, 21 eta 22	Heziketa afektibo eta sexuala ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
DBH2	Otsailak 4	Santa Ageda Altzibar auzoan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Otsailak 24	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen Prebentzio Programa / ALKOHOLA, ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa eskaintzea
DBH3	Otsailak 3, 4 eta 5	Heziketa afektibo eta sexuala ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
DBH3	Otsailak 4	Santa Ageda Iturriotz auzoan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
DBH3	Martxoak 3	Emakumeen kontrako tratu txarrak: "kalean uso, etxean otso"	Emakumeen kontrako tratu txarren prebentzioa
DBH4	Urtarrilaren amaieran	Heziketa afektibo eta sexuala ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
DBH4	Otsailak 4	Santa Ageda Ugaldetxo auzoan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
DBH4	Martxoak 2 eta 3	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen Prebentzio Programa, ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa eskaintzea

ESKOLAZ KANPOKO **EKINTZAK**

ATLETISMO EGOKITUA ETA SLALOM PROBA

Hurtzaro Atletismo Taldeko berrikuntzak

2015-2016 denboraldia berezia izaten ari da Hurtzaro Atletismo Taldearentzat. Aurreko denboraldi bukaeran jaso genuen berri pozgarria, eta irailean baieztatu: Ane Asensio lagun zaharrak (bere anaia taldean ibilia da) atletismo egiten hasi nahi zuen.



Kirol egokituko, Slalom probako eta Oiartzungo Udaleko ordezkariekin harremanetan jarri eta segituan hasi ginen lanean. Itsaso Markos taldeko entrenatzailea ibili da berarekin hasieratik, eta aipatu beharra dago lagun-tza handia jaso dugula Mindara elkartetik ere, Itsaso Navaskues bertako kidearen eskutik.

Bi proba izan dira, talde osoarekin egiten ditugunaz gain, Anerekin landu ditugunak: atletismo egokitua batetik, eta slaloma bestetik. Azken hau entrenatu ahal izateko, gainera, ikastolako frontoian pintaketa lanak egin genituen, Kirol Egokituko federazioko kidea den Sandra Peñaren laguntzarekin. Moltes gràcies, Sandra!



Zirkuitu berria estreinatzeko, taldeko infantil, kadete, jubenil eta juniorrekin entrenamendu berezia antolatu genuen Gabonetako oporretan. Aneren gurasoek lortutako aulki handiago batekin, taldekideok ere slaloma probatu ahal izan genuen. Gogoratzeko moduko entrenamendua izan zen!



Baina entrenatzearekin konformatu ez eta konpetizioak egiten ere hasia da dagoeneko. Slalomeko lehenengo Nafarroan izan zuen, otsailaren 11n, eta ahozabalik utzi zituen denak. Proba kronometratuan 2'39"57 egin zuen, eta bi eliminatorietan 26"72 eta 29"82; hiru denborak oso oso onak. Ideia bat egiteko, denbora horiekin, momentu honetan, bere mailan Estatu Espainiarreko lehenengo postuan kokatu da Ane rankinean, bai proba kronometratuan eta baita eliminatorian ere, Espainiako txapelketarako minima lortuz.



Konpetizioa aulki berezi batekin probak egiten ere hasia da Ane, baina denbora beharko du egokitzeke. Bitartean, orain arte bezala jarraitzea da gure asmoa, taldekideekin batera beroketa eta ariketak eginez eta slaloma, atletismoko beste ariketak eta jolasak tartekatuz. Atletismoarekin gozatzea eta ongi pasatzea izan dira beti talde honen helburu nagusiak, eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere.



Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak izango dira Aneren hurrengo erronkak eta, nork daki, Bartzelonan ere ikusiko dugu agian, ekainaren 4an, Espainiako txapelketan. Baina zalantzarik gabe, Oiartzungo kiroldegian burutuko den slalom jardunaldia izango da guretzat bereziarena, ilusio handiarekin antolatuko duguna. MAIATZAREN 14a, larunbata. Gogoratu data hori!

Eta bukatzeko, Slalom probaren edo Haurtzaro Atletismo Taldearen jarraipena egin nahi baduzue, ez ahaztu taldeko bloga ere badugula (urtarrileko mezuetan ikusi dezakezue slalom zirkuituaren bideoa, frontoiko pintaketa estreinatu genueneko). Ikastolako web orritik sartu daiteke bertan, edo zuzenean atletismotaldea@haurtzaro.ikastola.eus klikatuz.



Zorionak Ane eta eutsi goiari!

Haurtzaro Atletismo Taldea

ESKOLAKO AGENDA 21

UDAL FOROA

Otsailaren 18an, asteartea, udalbatza berezia egin zen udaletxean. Oiarzungo alkatea Oiarzungo bi ikastetxeetako ikasleekin elkartu zen. Bilera hartan, ikasleen iazko eskaerei udalak zer erantzun dien azaldu zuen alkateak. Era berean, aurten egindako lanen berri eman zuen Udalak, eta gai horrekiko duen konpromisoarekin jarraitzeko asmoa duela azaldu zuen.



EHUko ikasleen bisita

Azken ikasturteetan antolatu bezala, aurten ere, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen bisita izan genuen Hurtzaro ikastolan, otsailaren 18an. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako masterrean Teknologia espezialitatea egiten ari diren ikasleak etorri ziren gure ikastolara. Bertan, teknologia tailerra, DBH 3ko ikasgela bat (armairu digitala, arbel digitala...) eta laborategia ikusi zituzten eta aipatu arloetan esperientzia zabala duten bertako irakasleekin elkarriketatzeko aukera izan zuten. Teknologia tailerra eta natur zientzietako laborategia kudeatzeko eta mantentzeko lanen inguruan, unibertsitatean jasotzen ari diren prestakuntzaren osagarri bikaina jaso ahal izan zuten.





OIANTZABAL BASERRIRA TXANGO

Abenduko lehen bi egunetan, Karrika auzoko Oiantzabal baserria ezagutzeko aukera izan genuen Urmendi haur eskolako bi urteko haurren bost taldek. Autobusera sartu orduko, a ze nolako emozio aurpegiak antzeman genituen gure txikiengan! Ttur-ttur-ttur, autobusak Artason utzi gintuen eta, handik, tipi-tapa egin genuen baserrira iritsi arterainoko bidea. Eguraldi aparta genuen, gainera!

Aldapatxoa igo eta hantxe ikusi genuen Julen, gure zain. Berak erakutsi zizkigun baserriko animaliak, hala nola behia, txakurrak, txerria, oiloak, eta baita ardi mordo bat ere! “Beeee, beee” egiten hasi ziren ozen gu ukuilura sartzan sumatu gintuztenean. Haur batzuk animatu ziren haiek “pallakatzera”; beste batzuek, ordea, urrunetik ikustea nahiago! Meritu galanta izan zuen Julenek txerria ikusteko haurrak banan-banan txandaka besotan hartu zituenen!

Oiloei jaten emateko tarte ere izan genuen, *purra-purra-purra...*; eta hori guztia egin ondoren, bertako txokora gonbidatu gintuen hamaiketako txiki bat egi-tera sutondoaren goxotasunean. A ze goiz polita pasa genuen animalia artean!

Gure aldetik, Juleni eta bere familiari eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Bejondeizuela gu horren ongi eta gozo hartzeagatik!

*Koikile Arruabarrena, Maru Rivas, Garbiñe Ugalde,
Begoña Rezola eta Aintzane Zufiria*
URMENDI HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEAK





XXXVI. ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Pasa den ostiralean, otsailak 19, Hernaniko Biteri kultur etxean izan ziren Haurtzaro ikastolako ikasle bertsolariak. 6. mailatik 20 ikaslek hartu zuten parte bertso paperetan, eta DBH 1etik 30 gaztetxok idatzi zituzten bertsoak. Guztira, beraz, 50 ikasle bertsoak idazten.

Ondoren, Haurtzaro Bertso Eskolako txikien taldeak hartu zuen parte taula gainean kantari. Oso saio polita eskaini zuten, akordeoi eta guzti.





*Prosa eta Poesia
Lehiaketako
irabazleak,
epaimahaiko
kideekin*

XXVIII. PROSA ETA POESIA LEHIAKETA

Haurtzaroko ikasleek berriro ere maila ona erakutsi dute

Iazko abenduan banatu ziren XXVIII. Prosa eta Poesia Lehiaketako sariak, udal areto nagusian. Euskara zinegotzi Ioritz Aizpuruk eta Euskara teknikari Aitziber Arnaizek aurkeztu zuten ekitaldia, Edurne Agirrezabala aktorearen laguntzarekin.

Guztira, 20 sari banatu ziren, 8-18 urte bitarteko ikasle oiartzuarren artean. Haietatik 18 Haurtzaroko ikasleek lortu zituzten: 11 prosa alorrean eta 7 poesian. Zorionak guztiei!

Aurten, lagun hauek osatu dute epaimahaia: Nerea Aizpuru Arrillaga, poeta; Pello Añorga Lopez, ipuin-kontalaria; Sohalge Arbelaitz Kortabarria, irakaslea; Izar Azpiroz Iragorri, matematikaria eta irakaslea; Imanol Irigoien Aranberri, poeta eta margolaria; Goiatz Labandibar Arbelaitz, kazetaria eta idazlea; Aingeru Palomo Zabala, irakaslea; Intxixu AEK euskaltegia; eta Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea.

Udalak adierazi duenez, aurten saritutako lan guztiekin eta aurreko bi urteetan saritutakoekin liburuxka argitaratuko da datozen hilabeteetan. Hortaz, LH 3tik goitiko ikasle guztiei banatuko zaie ale bana (aurreko bi urteetan lanak digitalki zabaldu dira, krisi ekonomikoa zela medio).

Ikasleen idazmena eta irakurmena sustatzeko Udalak antolatzen duen lehiaketa hori gure proiektuan txertatua dugu, eta maila horietako ikasle guztiek hartzen dute parte. Lehenik, testu horien lanketa egiten dugu, mailaz maila, eta, ondoren, ikasle bakoitzak lan bat egiten du lehiaketan aurkezteko.

SARIDUNAK

PROSA

1. saila: Goiuri Albisu Belarra eta Lide Larrea Etxebeste.
2. saila: Axel Lasa Gelbentzu eta Naroa Etxebeste Eizagirre.
3. saila: Haitz Aranburu Mutiloa eta Beñat Garaiair Pikabea.
4. saila: YueYi Iriarte Lasa eta June Manjarres Castro.
5. saila: Aiora Mancheño Jauregi.
6. saila: Maddi Puy Sorondo eta Maddi Ibarguren Elozegi.

POESIA

3. saila: Allende Urritegi Loperena eta Lur Lopez Fraile.
4. saila: Malen Elizasu Manterola eta Malen Frantsesena Arnaiz.
5. saila: June Galardi Zapirain eta Aiora Mancheño Jauregi.
6. saila: Maddi Ibarguren Elozegi.



Haurtzaro Ikastola

GOLDEN 5 BIDEAN



GOLDEN 5 HELBURUA

Ikasleen motibazioa, autoestimua, eskolarekiko atxikimendua eta eskolako emaitzak hobetzeko proposamena. Horretarako, irakasleon zenbait gaitasun profesional garatu beharko ditugu.



OINARRI TEORIKOAK

1. ESPEKTATIBEN TEORIA edo PIGMALION TEORIA

Pentsatzen duguna ikusten dugu.

2. ATRIBUZIOEN TEORIA

Atribuzioak (pertsonek bati atxikitzen zaizkion ezaugarriak) baieztatzeke adibideak bilatzen ditu gizakiak.

3. AUDIENTZIA EFEKTUA

Atribuzio positiboak partekatzea eta zabaltzea.



GOLDEN eremuak

1. Ikastaldearen kudeaketa
2. Harremanak eraikitzen
3. Giro soziala (gelan)
4. Ikasketa doitua
5. Familia-ikastetxe harremanak



PROZESU HORREN LIDERRA...

Irakasleek tresnak eta trebetasunak lortzen dituzte hauetarako:

Ikastaldearen funtzionamendua kudeatzeko

Gurasoen inplikazioa lortzeko

Ikasleen artean harreman positiboak eraikitzeko

Ikasle bakoitzaren ikasprozesu doitua diseinatzeko

Harremanetarako zein ikasteko gelako giro egokia sortzeko

Ikasle guztiak GOLDEN ikasle bilakatzeko



IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

- 2014/15 ikasturtean 4 irakasle joan ziren mintegietara (Dinamizatzaile taldea) + irakasle guztiak azalpen orokorra jaso zuten ikastolan.
- **2015/16 ikasturtean** Dinamizatzaile taldea eta zikloko koordinatzaileak joango dira mintegietara, eta **Klaustro osoa** martxan jarri da.

HEMENDIK AURRERA EGIN BEHARREKOA

- Egunerokoan **GOLDEN BEGIRADAREN** garrantziaz ohartzea.
- Atribuzio **POSITIBOAK** indartzea.
- **IKASLE GUZTIETARA** iristea.



“Ikasle guztiak merezi dute atribuzio positiboa egitea ikasgelan; alegia, denen aurrean esatea zein ona den halako gaitan”



EUSKARAZ BIZI EUSKARAREKIN JOSTATZEN

Bigarren hiruhileko honetan, agendak hain beterik izan ditugun honetan, Euskaraz Bizi egitasmoak izan du bere lekua, eta ez nolanahikoa.

Hain arrakastatsua izan ohi den *Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu* kanpainan murgildu ginen martxoaren 9tik 18ra bitartean. Hamabostaldi horretan zehar, ahozketasuna lantzea izan da gure helburu nagusia, jolasetan elkar animatzeko erabiltzen diren esamolde jatorrak indartuz: *eman gogor!, eutsi goiari!...* Girotzeko, *Udaberrian abiatu nintzen* abestia aukeratu dugu, urtaror horretan bete-betean sartuko garelako:

UDABERRIAN ABIATU NINTZEN


Udaberrian abiatu nintzen
dama gazte baten bila,
atea kax-kax jo nuen baina
ez zidaten erantzuten.
Lalalarala...





Kanpainako azken egunean, egitasmoa biribiltzeko eta landutako esamoldeak erabiltzeko, ikasle nahiz irakasleek parte hartzeko jolasak antolatu dira, opor-
rak giro alaian hasteko.

Eskuttuneko ikasleak ere buru-belarri aritu dira kanpainaren prestaketan eta apainketa lanetan. Gainera, DBHrako bi txapelketa antolatu dituzte; palakoa bata, eta futbolekoa bestea. Ikasleak binaka nahiz gelaka lehiatu dira beren artean eta, ondoren, irakasleen aurkako partidak jokatu dituzte. Urtero bezala, aurtengo txapelketak ere oso arrakastatsuak izan dira: 22 bikotek eman dute izena palan, eta 6 talde osatu dira futboleko jokatzeke. Otsailean hasi ziren txapelketak eta kanpainarekin batera amaitu dira.



gogoratu, oporretan ere, euskaraz bizi!



Kuadrillategi



Kaixo denai!

Gu Kuadrillategiko DBH 1eko gaztiak ga ta gure esperientziya kontatzea heldu ga. Kuadrillategin ekintza asko in ttugu oñarte: taluk, eskalada, Txuri-uridin izotz pistara irteera, pizza tailerra, anuntzio lehiaketa...

Taluk ittia asko gustatu zigun; hasieran zail xamarra intzen ta gañea gutako gehinak sekula ez genittun lenoztik in. Pixkanaka geoz ta errexo iriuttu zigun ta gustoa aittu giñan!

Sketx lehiaketa re in genun, eskualdekua. Oso diberti-garriya izandu zen gai bat aukeratu ta taldeka bideoklip bat ittia. Gañea, lehiaketa bateako izanta, gogo haundiyakin aittu giñan lanin! Erki pasa genun ta, herrira sarin bat e iritsi zela jakinta, poz-pozik geldittu giñan.

Eskalatzen re oso ongi pasatu genun ta par asko in genun; nahizta hasieran bildur pixkat pasa, erki ibilli giñan tximun moun gotti ta betti!

Oañ arte, ordia, gehien gustatu zaiguna pizza tailerra izandu da; oso gustoa aittu baiga Giriziyan gure saltsan piz-zak in ta, bateze, jaten! Iya hemendik aurea ze itten dugun... goguakin gaude jakitteko! **Orduarte, ongi izan denak!**

Aupa gaztik!

Kuadrillategiko DBH 2ko gaztiak aurtan bigarren urtia dugu egitasmo hontan ta erki pasten dugu ostiralero. Denetik itten dugu ta hobena da guk aukeratzen dugula in nahi dugun hoi. Izugarrizko aukera iruitzen digu holako zeeze herriyan eukitzia ta tope aprobetxatzen ai ga! Dene-tik in dugu (gauza batzuk batzuntzako gustokoguk bestin-tzako biño, ta beste batzuk alderantziz), denan gustuk kon-tun hartuta indako plangintza bat jarraituz. In ttugun gauzan artin zinia, sketx lehiaketa, taluk, mozorro festa, eskalada, Autobus magikokun kontzertua... izan dia gehien gustatu zaizkigunak. Ta hemendik aureako ostiraletan ze ingo dugun gutxi gorabera bakigunez, desiatzen eoten ga ostirala iritsi ta ekintza berriyak itteko.

Gure proposamenan artin paintball, pintxo lehiaketa, karaokia, irteerak... dozte. Miño, bateze, aurtengo gure nahia kurtso bukaera aldin Madrileko Warner parkea jotia da ta lanketa bat itten hasiko ga laister gure helburua bete-tzeko. Oangoz detaile askoik ezin dugu man, miño eon seguru izango zutela gure berri ta gure nahia lortzeko bide hortan zuen laguntza re ezinbestekua izango dela!

Adi eon, beraz, ta ongi-ongi segi bittartin!

HAUR HEZKUNTZA 1

GURE GORPUTZA EZAGUTZEN

**3 URTEKO HAURRAK HANDITZEN
ARI GARA; BATZUEK JADANIK 4
URTE BETE DITUGU. GAUZA ASKO
EGIN DITUGU, BESTEEN ARTEAN,
DANTZATU, JOSTATU, ABESTIAK
IKASI, OIARTZUNDIK PASEATU...**

**ETA HORI GUZTIA, GURE
GORPUTZAREN MUGIMENDUARI
ESKER. ORAINGO HONETAN,
GORPUTZAREN GAIA LANDU
DUGU, ETA AUKERA IZAN DUGU,
BESTEAK BESTE, GURE
GORPUTZAK BEHATZEKO,
GEHIAGO EZAGUTZEKO ETA
PLASTIKOKI ADIERAZTEKO.**

HH 1eko IKASLEAK





HAUR HEZKUNTZA 2

JOLASAREN BIDEZ IKASTEN

**LAU URTEKOAK JOLASTU ETA
JOLASTU IBILTZEN GARA EGUN
GUZTIA, BAI GELA BARRUAN,
BAI KANPOAN.**

**DENA IKASTEN DUGU JOLASAREN
BIDEZ: LAGUNEKIN KONPONTZEN,
AUKERATZEN IKASTEN, GURE NAHIAK
EZAGUTZEN, IPUINAK IRAKURTZEN,
MUSIKA TRESNEKIN ONDO
PASATZEN, ERAIKUNTZA LAN
POLITAK EGITEN, JOLASETAN
TXANDAK ERRESPETATZEN, EDO
MEDIKU, PELUKERA, AMA, AITA,
OSABA, IZEBA, KAMIOI GIDARI,
IRAKASLE... IZATEN.**

**BEGIRA, BEGIRA! ARGAZKIETAN IKUS
DEZAKEZUE PRIMERAN PASATZEN
DUGULA!**






HAUR HEZKUNTZA 3

ERABILTZEN EZ DITUGUN JOSTAILUAK

**OLENTZERORI JOSTAILU BERRIAK
ESKATZEN HASI GINENEAN,
KONTURATU GINEN ETXEAN
ERABILTZEN EZ ZIREN JOSTAILU
ASKO GENITUELA. ZER EGIN
HAIEKIN? GELAN HITZ EGIN
ONDOREN, JOSTAILURIK EZ DUTEN
HAUR ASKO DAUDELA JAKIN
GENUEN, ETA ERABILTZEN EZ
GENITUEN JOSTAILUAK HAIEI
BIDALTZEA ERABAKI GENUEN.
JOSTAILUAK BIDALTZEA ZAILA
ZENEZ, SAN TOMAS EGUNEKO
AZOKAN SALGAI JARRI GENITUEN
ETA BERTAN BILDUTAKO DIRUA
BUSHULO ETIOPIAKO HERRIRA
BIDALI GENUEN.
ARGAZKIETAN IKUS DAITEKE
NOLAKOAK DIREN BERTAKO NESKA-
MUTILEN ESKOLA ETA ETXEAK.
ESKERRIK ASKO LAGUNTZA EMAN
DUZUEN GUZTIEI!**





LH 1. zikloa - 1. MAILA

BIGARREN HIRUHILEKOA, DEMBORAREN
MAKIAN SARTU ETA HURRENGO
GELDIUPEA LEHEN GEZAKIEN GARAIAN
EGITZ GEMUEN.
BERTAN, NON BIZI ZIREN MOLA
JANZTEN ZIREN, ZER JATEN
ZUTEN ETAB. IRASI GEMUEN.
OSO ANTZERKI POLITAK PRESTATU
GENTUEN ETA OSO ONGI PASATU
GEMUEN.
HAU BUKATU ONDOREN, ELIZADURA
ONGI EZ ZAIKTZEAGATIK FERMIN
GAIKOTU ZEMEZ, ERABAKI GEMUEN
EZ GEMUELA HURRELAGORIK
GERTATZERIK NAHI ETA LEIREK
OSO ONGI IRAKATSI! DENU ZER EGIN
GURE GORPUTZA ONGI ZAIKTZEKO.
ORAIN, OSO ONGI ELIKATZEN GARA.
LEIRE!



Inauteriak

2016



Haur Eskola



HH







LH1-2



LH 3-4





LH5-LH6



DBH 1-2-3





DBH4



Gurasoak



Aurkezleak



Zuzendaritza



Ihoteak





LH 1. zikloa - 2. MAILA

ITSASOTIK LABORATEGIRA

Kaixo, irakurzaleok!

Aurrekoan, LH 2ko ikasle baten ama izan genuen gurean. AZTI itsas ikerketako zentroan egiten du lan eta, "Boga, boga, marinela" gaiarekin lotura estua duen gaia denez, primeran etorri zaigu!

Ikastolako laborategian elkartu ondoren, egiten dituzten itsas ikerketen berri izan genuen. Arrain batek itsasoan egiten duen ibilbidea ikusteaz gain, itsas bizidunek egiten dituzten soinuak aditzeko aukera ere izan genuen, baita planktona behatzeko ere!

Besterik gabe, eskerrik beroenak aurkezleari, eta egizue boga gurekin batera!

LH 2





LH 2. zikloa - 3. MAILA

Deskribapenak

Bigarren unitatean, deskribapenak egiten ikasi eta nork bere burua deskribatu genuen. Egindako lanak Zuberoako gure lagunei bidali genizkien, eta dagoeneko jaso ditugu erantzunak.

Orain hobeto ezagutzen dugu elkar!

Oiztzenen, 2015ko abenduaren 9an.

Kaisa Etxebarria idazlea:

Ni Oier Etxebarria naiz, Oiztzenen bigi naiz (Gipuzkoa) eta 8 urte ditut. Anna bat da abat.

Ute bizirik marroia da abat, eta begiak ere marroiak da abat. Altxeraren ertaina naiz eta hankak ere ertainak ditut.

Alais bihurtu ondo eta oso jatorra naiz. Kiroa egiten gustatzen zaizkio. Zuen gizonaren zai egongo naiz.

Oier Etxebarria

Oiztzenen 2015ko abenduaren 9an

Kaisa Etxebarria idazlea:

Ni Helena naiz eta Oiztzenen bigi naiz, 8 urte ditut eta Hautzenen da abat. LH3B naiz eta oso ondo laguna da. Ute marroia eta marroia da, auzpegi marroia da, begi marroiak ditut eta lepo marroia. Kiroa naiz eta erator da eta hankak luzeak ditut.

Kiroa egiten oso gustatzen zaizkio eta jatorria oso da. Oso jatorra naiz eta bi lagun haberrak ditut Iza eta Arriana.

Azken urteak naiz zuzen ikusle Helena Etxebarria



Ene aurkezpena

Elala Mainhaguet deitzen niz 2007/05/15a sortu niz Muskildin bizi nüz, herri ttipi bat da.

Ene aita Michel deitzen da, 45 urte düt, ene ama Mirentxu deitzen da, 41 urte düt. Badütüt 3 ahizpa handi, Lorea eta Elena biakinak, eta joana.

Eskubalua egiten düt, Gero Euskal Dantzaere bai, Muskildin.

Biloak ilaburrak düt, begi ederrak düt Eukalduna niz eta ene lagunak dira: Ines, Anita, Argitxu, Eloia, Oihana, Pette, Iker, Xan, Iban, Mattin, Ernesto eta Hodei.

Ene aurkezpena

Izen deiturak: Eloia Barreix deitzen niz.

Sorteitua: 2007/02/24 an sortu niz.

Bizilekua: Muskildin bizi niz.

Ene familia: Ene aita Daniel deitzen da eta ene ama Maite.

Asialdeak: Ene kolore maitea ubela da. Ene kabele maitea lepoltza da. Eguberri maite düt. Ene laginak maite düt.

Nolako nizan: Bilo ilreak eta gaitain kolore düt. 1,32 m egiten düt.

Hortzetako tresna bat badüt.



Ameriketatik Arabiara, lokomozio aparatua erabiliz



LH 3. zikloa - 5. MAILA

IPUINAK BERTSOTAN

Oraingo honetan, gure artistak bertsolari bihurtu dira. Eta ondo bihurtu ere. Haiek sortutako ipuinak bertsotan idatzi dituzte. Hemen dugu horren adibide bat.

ELEFANTE BERTSOLARIA

Doinua: "Orbelak airez aire"

1

Edozer gauza zuen
berak merezia
bazen behin elefante
oso berezia!

2

Bertsoak botatzea
gustatzen zaio asko
halere saiatzen da
ez egiten potto.

3

Ezin zuen itxaron
larunbata arte
lehiaketa batean
hartu nahi zun parte

4

Elefantea joan zen
bere amonakin
eta badaezpada ere
mozorroarekin.

5

Zorte txarra izan zun
elefante harrek
elefantearen gaia
jarri zion horrek

6

Elefantiai buruz
ederki ari zen.
horregatikan batzuk
hasi zin susmatzen

7

Ez zizkioten bota
tomate ta harri
arropa kentzen diote
elefante horri.

8


Mozorroak ez zuen
jadanik babesten
beste guztiak ere
kendu egin zuten.

9

Arropa kendu zuten
eta harritu zen
beste guztiak ere
elefanteak ziren.

10

Berehala hartu zun
txapela eskutan
ez baitzion kabitzen
buru handi hortan.





LH 3. zikloa - 6. MAILA

GURE GORPUTZA ZAINTZEN

Bigarren ebaluazioan, "Gure gorputza ezagutzen" ari garen honetan, **Odol-emaileen** Elkarteko kideen bisita jaso dugu.

Bertan, *odolaren historia azaldu* digute (gizakiak odolarekin izan duen harremana: hasieran, marrazkiak egiteko, gaixoak sendatzeko, bai animalien odola, bai beste pertsona batzuen), eta *hainbat ikerketa eta aurkikuntza egin ondoren, gaur egun odolaz asko dakigula esan ziguten* (osaera, nola jaso, ez hondatzeko moduan gorde, non bildu (odol bankua)...).

Bestalde, joko, bideo eta ariketa batzuen bitartez konturatu gara odola ez dela sortzen laborategietan eta gizakiek emandakoaren bitartez bakarrik jaso daitekeela. Horregatik, konturatu gara **odol-emaile izatea oso garrantzitsua eta beharrezkoa** dela gaixo edo zaurituta dagoen bati bizitza salbatzen laguntzeko.






DBH 1-2-3-4

IKASLEEK AGENDA 21erako AURTEN EGINDAKO DIAGNOSTIKOA

Aurten, DBHko Arlo Sozialeko ikasle taldeek bost galdetegi sortu dituzte Eskolako Agenda 21 proiektuko diagnostikoa egiteko, eta LH 5 eta DBH 4 bitarteko ikasle guztiei helarazi dizkiete. Aurtengo gai nagusia **Elikagaiak eta hondakinak** izanik, bost gai hauetan banatu dituzte galdetegiak: hondakinen kudeaketa, etxeko ohiturak, jolasgaraietako hondakinak, ibilaldietako hondakinak, eta litxarkeriak. Bertako datuak jaso eta aztertuko dituzte. Honako hauek dira jasotako erantzunen erakusle batzuk:


1. Jolasgaraietako hondakinak

Nola ekartzen duzu hamaiketakoa?



Plastikoa	38	% 21.7
Zilarrezko paperean	72	% 41.1
Tupperrean	31	% 17.7
Beste batzuk:	34	% 19.4


Birziklatzen al duzu jolas garaian?



Beti	139	% 76
Batzutan	34	% 18.8
Inoiz ere ez	10	% 5.5

2. Ibilaldiak eta hondakinak


Ura nola eramaten duzu ibilaldietara?



Plastikozko botila	36	% 25.4
Kantimploran	102	% 71.8
Beste	4	% 2.8

3. Litxarkeriak

Zer egiten duzu osasuntsu mantentzeko?



Garafid erabiltzea ugari kontsumitzea	10	10.8%
Korrika egitea	31	31.8%
El geroak	52	52.7%
Beste	7	7.2%

4. Hondakinen kudeaketa


Paper birziklatuak erabiltzen al dituzu?



Bai	147	% 76.2
Ez	46	% 23.8

5. Etxeko ohiturak

Arropa garbitu ostean, zintzilikatu edo lehorgailua makinarekin lehortzen al duzu?



Beti zintzilikatuta	131	% 68.2
Beste	54	% 28.1
Beti lehorgailu makinarekin	7	% 3.6



DBH 1

TALOA

Euskaldunontzat, taloa benetan janari garrantzitsua da. Talo hitza entzun orduko, momentu gozoak etortzen zaizkigu burura. Izena eta izana badu, noiz eta nola sortu ote zen? Bestalde, norbaitek probatu nahi badu, jarraian osagaien eta errezetaren berri ere ematen da. Ez ahaztu, gainera, taloa elikagai bikaina dela dieta orekatuari eusteko. On egin!

Talora tradizioan

Talora ogi zapal mota bat da. Euskal Herriko lehen uztak zerealenak izan ziren, eta horrela hasi ziren taloak egiten. Mendeetan zehar jaki hau izan da gure baserrietako oinarritzko osagaia; hau da, gure herrian, Euskal Herrian, sustraiturik dago. Horretaz gain, taloak tradizioa adierazten du, natura adierazten du, eskulana eta sua ere bai; eta guztien gaintetik, zaporea erakusten du. Euskaldunontzat oso esanguratsua eta garrantzitsua izan da arto irinez egindako elikagai hau.

Taloaren onurak

Taloak, gozoak izateaz gain, oso osasuntsuak ere badira. Kolesterolak eta erradikal askeak kontrolatzen laguntzeko osagai ugari ditu; azido linoleikoa eta beta-karotenoak, esaterako. Halaber, oinarritzko olio elementuak ditu: potasioa, burdina, magnesioa eta manganesoa; eta osagai horiei esker, elikagai bikaina da elikadura orekatuari eusteko.

Lohizune Telletxea

Errezeta

Janari honen osagaiak: 350 gramo arto irin hori (oso osagai garrantzitsua eta energetikoa da), eta 250 mililitro ur epel. Ogi zapal honek, hala ere, behar du barnean sartzeko zer-bait; edozein gai sar diezaiokegu, baina txorizo egosia, gazta guria edo txistorra sartu izan ohi dira.

- Lehenik, jarri arto irina ontzi zabal batean eta, osagai hori baztertuz, egin zulo bat erdian.
- Bigarrenik, gehitu ur beroa pixkanaka, gatz pittin batekin, gero eta masatsuago bihurtzeko.
- Ondoren, jarri trazu erdi busti bat arto irinaren gainean 30 minutuz.
- Horren ostean, egin esku-pilota tamainako bolak, eta haiek ondo zabaldu; zartatzen bada, landu gehiago.
- Gero, jarri zartagina su bizian, eta gorritu talora alderdi bietatik.
- Azkenik, tolestu aurretik, ipini bertan nahi duzun osagaia, adibidez: gazta guria, txistorra edo txorizo egosia. Eta on egin!



hauzak BETE LAN

DBH 2

Poemario

Hizkuntzen bidez barruko kezka,
gorabeherak, sentimenduak...
kanporatzeko aukera izaten dugu-
nean, idazle papera hartu eta era
guztietako testuak sortzen ditugu.
Eta horretarako modu edo forma
aproposa da poesia, hitzen esa-
nahiarekin, soinuekin edo neurrie-
kin aritzeko mila aukera eskain-
tzen badizkigu. DBH 2ko ikasleak
beldurren edo beste sentimen-
duen inguruan aritu dira.

PARA SIEMPRE

Amor, cuando me mirabas con esos ojos llenos de pasión,
odio, cuando pensabas que me iba,
temor, cuando estoy sin ti.

Me gusta estar pensando en ti a todas horas,
en todos los sitios, en todo el tiempo que tengo.
Me aburre salir a la calle sin ti agarrados de la mano,
sin sentir tus labios,
tus abrazos,
tu cariño.

Me sentía en las nubes al acariciarme
con tus manos marcadas con el tiempo.

He reído junto a ti, planeando nuestro futuro,
pensando en nuestra vida eterna.
He llorado en esos momentos
cuando te ibas enfadado.
He olvidado que me querías,
y ahora que estás ahí arriba
me arrepiento de haberte dejado ir.

Saioa Udaeta

BIOGRAFÍA POÉTICA

Amo a la gente que me ama,
odio a la gente que finge ser lo que no es,
temo la oscuridad que este mundo creó.

Me gusta, tu mirada.

Me aburro, cuando no estás conmigo.

Me siento, seguro al estar contigo.

He reído con las cosas que me has contado.

He llorado cuando me han dado malas noticias, cuando te fuiste.

He olvidado el duro pasado.

Ametz Arbelaiz



MIEDO A....

Miedo a...
la oscuridad.
Miedo a lo que me espera,
miedo a lo que mi imaginación
pueda pensar.

Terror a...
fracasar.
Terror a hacerlo mal,
terror a arrepentirme.

Me asusto con...
lo que me supera.
Asusta ver que te ahogan
tus propios problemas,
asusta ver que pueden contigo.

Tiemblo con...
quedarme sola.
Tiemblo cuando pienso
en lo que vendrá,
tiemblo cuando veo
que la habitación está vacía.

June San Sebastian

MIEDO A PERDERTE

Y cómo explicar esto que siento,
y cómo decirte que no quiero perderte.
Y qué decirte para que te quedes,
y qué decirte para que no te vayas.
Y cómo decirte que te quiero,
y cómo decirte que te necesito conmigo.

Miedo a quedarme sola
porque lo único que quiero
es estar con él.
Terror a que le ocurra algo
porque sin él me derrumbo.
Me asusto al pensar que ya no es mío
porque lo necesito aquí conmigo.
Tiemblo al pensar que me fallarás
igual que otros lo han hecho.
Muero al pensar que te has ido
y revivo al pensar que
sigues aquí a mi lado.

Jara Campano





DBH 3

ARGAZKI MUNTIAK

Gure inguruak eraldatzen ibili gara Plastika eta Ikus-entzunezko Hezkuntza arloan. Une batez, gure fantasiari heldu eta egunerokoan non egon nahi genukeen pentsatu dugu, ezagutzen duguna guztiz aldatuz. Irudimena martxan jarri eta hainbat ideia garatu ditugu, horrela, gure herria, gure etxeak eta gure ikastola erabat itxuraldatuz.

Oraingoan, artelan digitalean jardun dugu; ordenagailuaz baliatu gara, eta eskaintzen dituen hainbat aukera ezagutu ditugu. Ikasteko eta gozatzeko lana izan da eta, bide batez, gure ametsak irudikatu ditugu. Formak, espazioak, koloreak... behatu, argazkiak atera, eta espazio berriak sortzen ibili gara. Askok ikasi dugu, lan atsegin honekin.





DBH 3ko ikasle taldea Jose Manuel Etxarte "Trumoiak"ekin.

DBH 3koak **GAZTAINA ERREAK SALTZEN** Aiako Harriaren magalean

Badira urte batzuk azaroaren amaieran Arditurrin, Aiako Harriaren magalean, txondorra pizten dela, garai batean Oiartzungo mendietan oso ohikoa zen lanbidea gogora ekartzeko. Joan den azaroaren amaieran ere, txondorra piztu zen eta "Legatza", "Trumoiak", Baxerri eta "Takalo" gau eta egun lanean jardun ziren lau astez. Abenduaren amaieran, berriz, iritsi zen txondorretik ikatza ateratzeko garaia. Laukote bera izan zen protagonista, eta makina bat herritar gerturatu zen Arditurrira, ekimena ikustera.

Herriko talde eta eragileek ere parte hartu zuten azken saio horretan. Besteak beste, Haurtzaro ikastolako DBH 3ko gazteak ez genuen huts egin, eta taldetxo bat aritu ginen danbolinari eragiten, gaztainak erretzen, gero txondorra ikustera zetozen familiei saltzeko asmoz.

Gustura ibili ginen, lehendabizi txotxak presatzen, sua egiteko; gero, gaztainak mizpiltzen; eta, azkenik, danbolinean erretzen. Beste batzuk, era berean, kukurutxoak egiten jardun ziren, gaztaina erreak dozenaka saltzeko asmoz.

Hamar kilo gaztaina genuen saltzeko eta dena bukatzea lortu genuen. Jasotako sosak ederki etorriko zaizkigu DBH 4n egingo dugun bidaiarako. Dagoeneko ari gara gure itsulapikoa betetzen.





DBH 4

ENERITZEN BISITA

Urtarrilaren 22an, Eneritz Arbelaitz, ikastolako ikasle ohia, etorri zen udal ordezkari gisa Haurtzaro ikastolara, Udalak nola funtzionatzen duen erakustera. Gaur egun, Eneritz Udaleko zinegotzia eta alkateordea da. Hitzaldi hau aurreten hasi dugun Ekonomia irakasgaitik bideratu dugu eta landu ditugun hainbat atal argitzeko balio izan digu:


Udalaren egitura
Biltzen dituen zerga motak
Aurrekontuen azalpenak
Ematen dituen zerbitzuak

...

Eneritzek PowerPoint bat prestatu zigun eta, haren azalpenak gure galderekin tartekatuz, ordubeteko saioa egin genuen. Hauek dira aurkezpen honi esker atera ditugun ondorio garrantzitsuenak:

- Zergarik ordaintzen ez badugu, ezin ditugu bueltan zerbitzu publikoak jaso, ez baitago diru poltsarik horretarako.
- Zergen bidez jasotzen den dirua udal proiektuetan gastatu behar da.
- Urtero, aurrekontu bat kalkulatzeko da urte horretan zehar zenbat diru gastatuko den aurreikusteko, eta ahalik eta doituena izan behar du soberakinik ez egoteko eta zorretan ez sartzeko.
- Herri programa herritarrek, langileek, alkateak eta zinegotziek osatzen dute, auzoetan egindako proposamenetatik abiatuta.
- Oiarzungo Udalean diru asko dute biztanleei diru gehiago eskatzen zaie zergen bidez; eta diru gutxi dutenei, berriz, ez zaie dirurik eskatzen, eta, ahal den heinean, diru laguntzak ematen zaizkie.
- ZERGA: gastu publikoei aurre egiteko ordaindu beharrekoa.
- TASA: zerbitzuagatik ordaintzen da. Ezin du izan kostuaren % 100a baino handiagoa.
- Diru gehiena zuzeneko zergekin jasotzen da.
- Inbertsio handienak hiri eraikinetan egin dira.
- ...

Eneritz eskerrak eman nahi dizkiogu ekonomiako klase-
ra etortzeagatik. Bestalde, galdera ugari prestatu genituen taldeka, eta ez genuen denborarik izan denak galdetzeko, ezta gutxiago ere. Beraz, gustura jasoko genuke beste bisita bat.



OIARTZUNGO HEZKUNTZA TOPAGUNEA:

LOMCE/HEZIBERRIRI EZ! GUK, GUREA.

Dagoeneko urte bete baino gehiago pasa da Oiartzungo Hezkuntza Topagunea lanean hasi zenetik. Haurtzaro Ikastolako guraso, langile eta ikasle edo ikasle ohi askok bertan parte hartu dugu ibilbide honetan, norbanako bezala beti ere, beste hainbat herritarrekin batera.

Gaur, Topagunearen lana inoiz baino garrantzitsuagoa dela uste dugun honetan, lerro hauek idazteari ekin diogu Ikastolako komunitateko lau kidek, helburu bakarrekin: orain arte egindakoa laburtzea, hemen-dik aurrerakoan parte hartzera animatuz.

Lanketaren hasiera eta Topagunearen sorrera

Herritar batzuen eskaera aintzat hartuta, Azmarrin taldeak hitzaldia antolatu zuen 2014ko abenduaren 10ean, "LOMCEri EZ! Baina... zer da LOMCE?" izenburupean. Helburua hezkuntza lege berriaren ezaugarriak azaldu eta egon zitezkeen kezka edo galderak argitzea zen.

Herritar asko hurbildu ginen hitzaldira, eta entzuleen artean proposamen argi bat egin zen: LOMCE/Heziberriri aurre egin eta hezkuntzaren gaia landuko zuen talde bat sortzea herrian. Interesa genuenon artean beste data bat zehaztu eta taldea bere bidea egiten hasi zen.



Hasierako asanblada ireki haietako batean jarri genion Oiartzungo Hezkuntza Topagunea (OHT) izena, Euskal Herriko beste hainbat herritako Topaguneekin batera Hezkuntza Plataformen Topaguneko parte izateko asmoarekin.



LOMCE-HEZIBERRIRI EZ!

Burututako ekintza eta mobilizazioak

Burututako lehenengo ekintzetako bat sinadura bilketarena izan zen. 1.727 sinadura lortu genituen herrian. Eta sinadurekin batera argazki erraldoi bat ere atera genuen Ikastolan, planto egiten ari ziren ikastetxeei babesa emanez.

Plaza inguruan ere mobilizazio pare bat egin ditugu, kalejira eta guzti, festa giroan. Ehunka herritar elkartu eta prentsaurrekoa, bertsoak, hainbat testuren irakurketa... bezalako ekintzak burutu ditugu, herriari begira eta baita Euskal Herriko Hezkuntza Plataformen Topaguneari begira ere.



Oiartzungo Hezkuntza Topaguneak bultzatuta, gainera, oiartzuar guztiok elkarrekin kantatu genuen abenduaren 24an, herriko plazan. Bi ikastetxeetako ikasle, langile eta gurasoak, beste hainbat herritarrekin batera, elkarrekin kantari ikustea polita eta garrantzitsua izan zen, beste behin ere argi geratu baizen Topaguneak batu egiten gaituela. Eta batuta errazagoa izango da hezkuntza lege arrotzei aurre egin eta gure hezkuntza propioaren bidean pausoak ematea.

2016rako erronkak: inposatutako azterketei plantoa eta herriko curriculum

2015-2016 ikasturte honetan LOMCEren baitako 3. eta 6. mailako azterketak egitea aurreikusia zegoen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Heziberri 2020 planaren barnean, aurten 3. mailako azterketa soilik egitea eta 6. mailakoa ez egitea erabaki du (hurrengo ikasturtean bai), ziur aski iazko plantoak lortutako arrakastaren beldur direlako.



Azterketa horiek Espainiako Ministro Kontseiluak LOMCE legean onartu zituen. Euskadin dekretuz onartu da, inolako kontsentsurik gabe. LH 6. mailako azterketa ikastetxe kanpoko adituek diseinatuko lukete eta ikastetxe kanpoko irakasleek zuzendu. Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketa barne-ebaluazio izenekoa da. Barne-ebaluazio diagnostikoaren diseinua ikastetxeen esku dago. Ikastetxeari dagokio noiz egin erabakitzea eta ikastetxeko irakasleei dagokie ebaluazioa zuzentzea.

Gero eta kritika gehiago ari dira jasotzen Pisa bezalako ebaluazio diagnostiko horiek, gehienbat, gobernariak emaitzen inguruan erabilpen txarra egiten dutelako. Izan ere, agintarientzat azken helburua herrialdeetako Hezkuntza rankinean ahal den gorena egotea da.

Garrantzitsua da azpimarratzea soilik hizkuntza, matematika eta zientzia kompetentziak neurtzeko asmoa dutela azterketa horien bidez. Beste kompetentziak ez dira neurtuko eta, ondorioz, ez dira ikastetxeko hobe-



kuntza planetan sartuko (arterako kompetentzia, kompetentzia motorra eta gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia). Konpetentzien artean interesatutako hierarkia inposatzen dute. Zergatik ez neurtu, behin hasiz gero, ikasleek dituzten baloreak, izpiritu kritikoa, sormena, ekimenerako konpetentzia edo elkartasuna?

Hezkuntzan ebaluazioak beharrezkoak dira, baina edozein proba ezin da ontzat eman. Ez dugu ahaztu behar orain arte egin diren ebaluazio diagnostikoak Ekonomia Lankidetzaren Garapenerako Antolakundeak, hezkuntzarekin zerikusirik ez duen erakunde batek, bultzatu dituela. Erakunde horrek izaera politikoa eta ekonomikoa du, nabarmen. Noren interesak defendatzeko diseinatu dira ebaluazio diagnostikoak? Globalizazioari eta lan merkatuari begira egindako probak ematen dute; baina Hezkuntzak enpresen eta ekonomiaren zerbitzura egon behar al du? Euskal Herri bezala gure kultura, gure historia, gure ohiturak, gure hizkuntza eta baloreak mantentzen eta defendatzen laguntzen al dute ebaluazio diagnostiko izeneko horiek?

Arrazoi horiengatik guztiengatik, aurtengo helburu nagusienetako bat inposatutako LH 3. mailako azterketa hauei planto egitea izango da. Denon artean lortuko dugu!

Baina, Topaguneak bere sorreratik argi utzi duen bezala, hezkuntza lege arrotzei aurre egiteaz gain, gure hezkuntza eredu propioa eraikitze bidean ere pausoak eman nahi ditugu. Ez gara, ordea, bide hori urratzen ari garen bakarrik. Beste herri batzuetan ere ari dira ikasle, irakasle, guraso, eragile zein norbanakoak gure antzeko ekimenak aurrera eramaten; oriotarrak, esaterako. Hainbat herritarren artean lortu dute euren herriko curriculum osatzea. Gurean, Oiartzungo curriculum aspaldi aipatu bazen ere, oraintxe heldu diogu serioago gaiari, eta oiartzuarrok benetan horrelako curriculum bat sortzeko beharra ikusten dugun jakiteko antolatu dugu Orioko curriculumaren inguruko hitzaldia. Dagoeneko martxan dauden proiektuak eza-gutu nahi ditugu lehenengo, gurean zer egin erabakitzeke ondoren.



Hemendik aurrera, guztion parte-hartzea behar-beharrezkoa

Esan bezala, bi dira momentu honetan lantzen ari garen puntuak: plantoa eta herriko curriculum. Baina lerro hauen bidez gogoratu nahi dizuegu hilero egiten dela asanblada irekia, eta bertan erabakitzen direla landu beharreko gaiak ere. Bi horiek bezala, beste batzuk ere izan daitezke, gero eta ideia, proposamen eta iritzi desberdin gehiagorekin aberatsagoa izango baita Topagunearen lana.

Orain artekoa azaltzen saiatu gara hemen, gu lauron ize-nean eta umiltasunez, baina hemendik aurrerakoa guztion esku dago. Beraz, hezkuntzarekin interesa edo kezka baduzu, ez pentsatu bi aldiz eta parte hartzera animatu, guztion ekarpena oso garrantzitsua izango da eta.

LOMCE/HEZIBERRIRI EZI! GUK GURE HEZKUNTZA ERAIKI!

*Udane Madariaga, Pizti Larrañaga,
Xabi Salaberria eta Intza Errandonea.*
(HAURTZARO IKASTOLAKO GURASOAK,
LANGILEA ETA IKASLE OHIA)



MUNDUKO TXAPEN MUSEOA

IKASTOLAN


Gu LH 4ko D gelako ikasleak gara (oso jatorrak). Egun batean, 3. mailan geundenean, txapetan jolasten hasi ginen ikastolan. Eta jolastu, eta jolastu... azkenean modan jarri ziren.

Oso txapa bereziak genituen, eta gero eta desberdin gehiago. Horren ondorioz, txapen bilduma egiten has-tea erabaki genuen. Txapa berri bakoitza poto batean zeuden gozokiekin trukatzek genuen, eta horrela animatuz joan ginen.




Hasieran, 50 txapa desberdin lortzea ere zaila iruditzen zitzaien batzuei, baina guk esaten genuen haiek baino askoz gehiago lortuko genituela. Eta horrela izan zen.

Biltzen hasi ginenean, koloreka sailkatu genituen, desberdinak ziren edo ez hobeto bereizteko. Beste gela eta mailetako ikasleei eta familiakoei ere eskatu genizkien, eta haiek ere ematen zizkiguten, pixkanaka. Taberna berrietan, ezagunen bidez, bidaietatik...



Gero eta gehiago lortzen ari ginen, eta 100 txapa, 200 txapa, 500 txapa, 1.000 txapa... zenbaki biribilak lortzean festatxoak egiten genituen gelan, ospatzeko. Batzuetan beste gelakoak ere etorri izan dira ospatzera, asko lagundu baitigute.







Azkenean, ez ditugun txapak lortzea gero eta zailagoa bada ere, 1.200 desberdin lortu ditugu. 1.200 txapa desberdin, munduko txoko guztietakoak! Oso pozik gaude lortu dugunarekin, eta zuekin konpartitu nahi izan dugu. Eskerrik asko bilduma honetan parte hartu duzuen guztiei!

Museoa gelan daukagu. Beraz, munduko txapak eza-gutu nahi badituzue, gonbidatuta zaudete. Eta bilduman parte hartu nahi badituzue, gustura jarraituko dugu txapa desberdinak biltzen!

*Odei Brea Landa, Garazi Elizegi Goikoetxea,
Aner Goia Odriozola eta Aiur Larrañaga Arretxe,
gela osoaren izenean.*





AMAZON
BADOO
BING
BLOGSPOT
EBAY
FACEBOOK
FLICKR
GOOGLE
HOTMAIL
MOZILLA
MYSPEACE
PINTEREST
TWITTER
WIKIPEDIA
YOUTUBE

OIARTZOKO IKASLE OHIEN DIPLOMA BANAKETA (2015/12/26)

Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Haurtzaro Ikastolaren izenean



TXINPART64

www.hautzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnua.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@oiacom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



902150404 943102055



GEZAK S.C.
KINLODEGOTAKO KIDEAKETAK
GOSTOEN INTEGRAL PULBERRAK



ELORSIOA KINLODEGIA • Euzkadi 24
T. 943 492 550 • M. 629 761 802
F. 943 490 591 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)